



Martxukak: laharraren fruituak dira. Hasieran gorriak dira eta gero kolore beltza hartzen dute.

emokatua: estalia, arras beta.

Gaparra: pentze edo baratze inguruko sasiek egiten duten hesia. Kaparra.

Amatxiren erreximenta

Egun asteazkena da. Arño etxean da. **Martxukak** ikusi ditu Amatxiren baratze zolan. Ikusi eta dastatu ere.

– Oso goxoak dira; aski ontuak! – Arño naka-naka martxuken jaten ari izan zen... egarritu arte.

– Amatxi! Amatxi! Egarrri naiz!

– Zer egin duzu haurra?

Arñoaren aurpegia beltz-beltza zen: beharrietaraino martxukez **emokatua!**

– Arño, badakizu zer egingen duzun? – erran zuen Amatxik.

Gaparrean gelditzen diren martxuka guziak bilduko dituzu eta gero erreximenta egingen dugu.